



HERNANI Urriak 16

[albistea](#)//SAGAR UZTA FESTA

Uzta berriaren festa haundia, gertu

Datorren astean egingo dute Sagar Uzta festa, ostegunetik igandera bitarte.

ASTIGARRAGA

2018/09/22 00:00 Larunbata

Koloretsu daude, Astigarragako sagarrondoak; eta laster hasiko dira, sagardotegietako tolaurretako lanak, 2018ko uztako sagardo berria egiteko. Eta nola ez, hori ospatzeko Sagar Uzta festa antolatu dute, beste urte batez. Datorren astean izango da, ostegunean hasi eta igandera arte.

Zita bikoitza jarri dute ostegunean bertan. Aurrena, familientzako plana prestatu dute: apainketa tailerra sagarrekin, Joseba Barandiaran plazan, 17:00etatik 19:00etara. Aurrez eman behar da izena, doan, eta hiru aukera daude: 943 55 05 75 telefonora deitu, info@sagardoarenlurraldea.eus helbidera mezua idatzi, edo www.sagardoarenlurraldea.eus webgunean sartu eta formularioa bete.

Beste ekintza, segidan izango da: pintxopotea herriko tabernetan, 21:00ak arte.

Egun haundia, igandekoa

Larunbatean ere izango dira beste bi ekintza: Sagar motak ezagutuz mendi buelta familientzako (izena eman behar da); eta Sagar Uzta Erronka Indoor proba, Foru Plazan.

Baina igandekoa izango da, urtero bezala, egun haundia. Sagarraren Jaia ospatuko dute Foru Plazan, azokarekin, lehiaketekin... Eta noski, uzta berriaren aurreneko muztioa egin eta dastatuko dute bertan.

EGITARAUA

IRAILAK 27, osteguna

17:00-19:00, Familientzako apainketa tailerra sagarrekin. Joseba Barandiaran plazan.

Izena eman behar da*, doan.

19:00-21:00, Pintxopotea, Astigarragako tabernetan.

IRAILAK 29, larunbata

09:30, Sagar motak ezagutuz, Santiomendiko Sagardo Bidean zehar mendi buelta familiarian.

Izena eman behar da*, doan.

10:00, Sagar Uzta Erronka Indoor, Foru Plazan.

IRAILAK 30, igandea

Sagarraren Jaia, Foru Plazan

09:30, Txirriskla Txistulari Taldearekin diana.

10:30-12:00, Sagar postre lehiaketa. Postreak frontoian entregatu beharko dira.

10:30-12:00, XI. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean. Izenemateak plazan edo aurrez*, 5 euroan.

11:00-14:00, Sagarraren azoka:

-Sagar mermelada tailerra. Izena eman behar da*, doan.

-Sagarraren erakusketa, dastaketa eta salmenta.

-Sagardo eta muztio dastaketa.

-Saski, txertaketa eta abarren erakustaldiak.

-Herriko baserritarren produktuen salmenta.

-Trikitilariak herrian zehar.

11:00, Muztioaren elaborazioa: sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea bertaratutako familien laguntzaz. 7-14 urteko gaztetxoei eta haien gurasoei zuzenduta. Izena eman behar da, doan.

12:30, Sagar dantza eta kirikoketa.

13:00, Txalaparta eta 2018ko uztako lehenengo muztioaren topa herrikoia.

14:30, Herri bazkaria.

17:00, Afizionatuen pelota partidua.

*Izenemateak: 943 55 05 75, info@sagardoarenlurraldea.eus edo www.sagardoarenlurraldea.eus

Sagarrak bildu eta muztioa egiteko, tailerrak

Familientzako plana prestatu dute Sagardoetxean, iraileko eta urriko asteburuetan; aurrez eman behar da izena. Erakusketak ere jarriko dituzte, datozen hilabeteotan.

Udazkena iristearekin batera, zenbait ekintza antolatu ditu Sagardoetxeak, tolareetan muztioa egiten hasiko direla aprobetxatuz. Eta hori da, familia eta taldeentzako proposatu duten plana: Sagarrari zukua atera familiarian! izango da, iraileko eta urriko asteburu guztietan, datorren igandean izan ezik.

Larunbatetan 12:00etan eta 17:00etan egin daiteke; igandeetan, eguerdian bakarrik. Izena eman behar da aurrez: 943 55 05 75, info@sagardoarenlurraldea.eus edo www.sagardoarenlurraldea.eus. Helduentzat 4 euro dira, haur eta gazteentzat doan.

Sagardo sagar barietateen erakusketa ere ikusgai dago azarora bitarte, 70 barietate baino gehiagorekin. Eta beste bi jarriko dituzte: Sagar Uzta Argazki Rallyko argazkiena urriaren 19tik 31ra; eta Sagardoa eta emakumea izenekoak, azaroaren 5etik 25era.

IRUZKINAK

0 Iruzkin kronika-eus

1 Saioa hasi

Gomendatu Tweet Partekatu

Zaharretik hasita

Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN



Izena

Egin lehen iruzkina.



HERNANI Urriak 16

ESKELAK

HERNANI

Ainhoa Auzmendi Tejedor



Agenda Bateratua

HERNANI

19:30 Etxebizitzaren Astea
Mahai-ingurua
Udaletxeko areto nagusia

19:30 Literatur solasaldia
Gauaren sakonean
Udal Liburutegia

//Erabiltzaileak

Puri-Purian

Romanen omenezko bankua, ... (1)

Autobus-zerbitzuetan «sekulako murrizketak» ... (2)

.EAJk kutsadura akustikoaren ... (2)

gurean.eus



**Hiru edukiontzi erre dituzte
Areetan**

▶ HIRUKA.EUS GIZARTEA



Hirutik hiru

URIOLA.EUS KIROLA

Urumeako gida

[Bilatu](#)

Gaztelu elektrizitatea

Elektrizitatean 35 urtetik gora

Iragarki merkeak

Onddi Akademia: LH, DBH eta Batxilerrerako laguntza, maila berdineko talde murriztuak. Astelehenetik Ostiralerara 15:30 - 20:00. Urbieta kalea 7.

Telefonoa: 688719571

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)

Telefonoa: 943332894

[+ Ikusi](#)

[Tweets por @KronikaNet](#)

idatzi domeinua

[Begiratu](#)

Zure domeinua

Zure domeinu-izena libre dagoen jakin nahi duzu?
Begiratu hemen!

Gaur



20°

12°

Bihar



21°

12°

Etzi



19°

13°

[Aemet](#) eskainitako datuak

Azken argazkiak



Lizeagako festak



Karabel eguna 2018



Mugikortasun astea 2018



Euskal Jaiak



Zikuñagako Festak



Auzo Eguna - Latsunbe...

Azken bideoak




Musika taldeek izena eman ...



«Hernaniarrak harritu egiten dira; ...



Agur San Joanei 2018



San Joanak hasita, denak ...



Gazteen Axeri dantza 2018



Memoria gorde, oraina bizi, ...

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA

URUMEAKO
kronika

KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120
Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714
E-maila: kronika@kronika.eus
astigarraga@kronika.eus
urumea@kronika.eus

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK



**DOBERA
KRONIKA
BAZKIDEAK**

Legezko oharra